


«HILOBITIK ATERA GENUEN ARGAZKIAK EGITEKO»

Asteartea zen, 1981eko otsailak 16 zituena. Juan Kruz Unzuurrungaga Zizurkilera joan zen, Joxe Arregiren omenaldian parte hartzera. Han bururatu zitzaion egun hartan bertan gorpua hilobitik ateratzea eta argazkiak egitea, bertsio ofiziala erabat indargabetzearren. «Bixente Ameztoiri esan nion». Laguna zuen artista, izan ere. Horrela hasi zen torturak gurean utzitako argazki lazgarrietako batzuen historia...




FRANKUSKETA
HEZUR MUINETAN

Azaroaren 12, 2009



Uztailaren 30an arte, www.kutxa.net SAHARRA LITZIAN



kutxa

gizarte elkartea

kultura

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa



Hilobi aurrean. 1981eko otsailaren 16a eta 17a bitarteko gauean Joxe Arregiren gorpuari argazkiak atera zizkietenetik, Juan Kruz Unzurrunzaga astelehenean itzuli zen lehenengoz Zizurkilgo hilerriera. Argazkian, Arregiren

«BERTSIO OFIZIALA INDARGABETU GENUEN»

Joxe Arregiren gorpua harrizko mahai baten gainean, torturak txikituta, baldosa zuriak eta ate beltza atzean. Askoren memorian geratu diren argazkiak. Ez ziren Madrilgo Auzitegiko Institutu Anatomikoan atera. Ezta Carabanchelgo Ospitalean ere. «Hemen, hementxe izan zen». Zizurkilgo hilerriko depositoa.

// *Amagoia Iban*

biltegi itxurako etxetxo honetan irudi haiek atera zirenik ere, zail egiten da sinesten. «Hemen izango zen, bada, ez dago eta beste tokirik». Juan Kruz Unzurrunzagak (Zarautz, 1940). Ezetz, ordutik ez dela itzuli hona, Zizurkilgo hilerriera (Gipuzkoa). 1981eko otsailaren 16ko gauean. Etxetxoaren atea irekitakoan,

orduan bai. Berehala agertu dira baldosa zuriak, parez-pare, barren-barreneko paretan. Tarteko atetik igaro arte ez da agertu mahaiak, ezkerretara, marmol zuria gainean, gorpuen eta garbitzailen likidoak isurtzeko zuloa azpian. Eskuineko txokoan, harraskatxo bat, eta ondoan leihoa. «Argazkiak ahalik eta arrasto gutxienekin ateratzen saiatu ginen. Maindireak ekarri genituen, tokia tapatzeko». Eta kanpotik ez zezaten ikus zertan ari ziren toki hartan gauer-

dian, linternak eskuan. Arratsaldoko ordu bateko hileta elizkizunaren ostean itxi zuten hilobia atzera irekitzen — «panteoi hone-tako harlauza zigilatzeke erabili zuten porlana gogortu gabe zegoen artean» —, hilkutxa kontu handiz ateratzen, gorputegira eramaten eta argazki mordoa ateratzen. «Bost-hamar minutuko kontua izan zen».

Azkarra eta garbia. Eta ezkutukoa. Joxe Arregi zenaren familiak berak ere ez du jakin. Gaur arte.

Gure deiari erantzunez, izan ere, haren senide bat etorri da, eta zuzenean ari da entzuten Unzurrunzagaren testigantza. «Hura baino ekintza garbiagorik! Inork ez zuen lehendik halakorik egin, hori genuen alde. Nork pentsatu behar zuen inork hilobia ireki eta gorpua atera behar zuenik? Hemen ez zen polizia-erantzule eta geratzen gauerdi hartan».

Joxe Arregiren hileta egun hura greba orokor eguna ere bazen Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Na-

farroan, hain zuzen ere, eta Espainiako segurtasun indarrek nahiko lan bazuten tokian tokiko mobilizazioak kontrolatzen eta haiei jartzaten. Zizurkilgo hilerri honetan, beraz, eta urduritasunak urduritasun, lasai egin ahal izan zuten pentsatutakoa. «Gorpua kutxatik errespetu handiz atera eta erantzi egin genuen argazkietarako. Jo eta ma geratu ginen han agertu zena ikusitakoan. Beltzune haiek, hanka azpi haiek haragi bizitan! Leher-tuta zegoen erabat. Aurpegiak ematen zuen ikara gutxi. Argazkiek ez dute erakusten izugarrikeria haren laurdena ere».

Loreak eta papertxoak

Ez zuten besterik espero, hala ere. Espero ez zutena, hilkutxan aurkitu zituzten loreak eta papertxoak: «Plazan ireki zutenean jendeak kutxara sartuko zizkiola pentsatzen dut. Argazki saioa bukatu genuenean, guztia lehengo tokian ipini genuen, kontu handiz, gorpua berriaz kutxan sartzerakoan».

Egun osoa zeramaten hedabide



hilobi parean ageri da. JON URBE / ARGAZKI PRESS

guztieki Madrilen itxitako hilkutxa ezin zela ireki erreplikatzeko. Unzurrunzagak bazekien zergatik. «Presoen abokatua nintzen garai hartan. Lehen eskuko informazioa neukan. Hura hil bezperen Carabanchelgo Ospitalean bertan izan nintzen, eta han esan zidaten Arregi hiltzen ari zirela. Denek ze-



«Mairidieak ekarri genituen, ez zezaten jakin non ezarri genituen argazkiak»

JUAN KRUZ UNZURRUNZAGA
JOXE ARREGIRI GERTATUTAKOAREN ZABALTZAILA

kiten zurrumurrua, baina badakizu zer den boterea». Hil zuten, bada. «Beste asko bezala».

Eta bertsio ofiziala, beste askotan bezala, agerikoa ezkutatu nahian. «Niri eman zidan amorrua, Donostiatik Zizurkilerako bidean—Arregiren omenaldira nentorren autoz—albigestegi guztietan 'arnasa eta bihotza gelditu izanaren ondorioz hil zela baieztatzen da' entzun behar hark! Denok hiltzen gara arnasa eta bihotza geldituta, aizu, baina Joxe Arregi torturagatik hil zen, eta ofizialki betiko geratuko zen bestea!».

Eta kutxa irekitzeko debekuarrena zegoen, hori ere erreplikatzeko irratia. «Haserre nengoen oso. Eta herrira heldu nintzenean, senideak erabat beldurtuta zeudela ikusi nuen. Hura ezkutuan pasatzen uztea izugarria iruditzen zitzaidan». Herriko plazan hilkutxa mailu eta zintzelez ireki zutenekoa gogoan du. Baita jendetza ere. 28 urte joan dira ordutik, eta berotu egiten da oraindik ere gogoratzen. Horrelaxe bururatu zitzaion ezkutuko agerian uztea. «Burutzioa izan zen, izan ere, hilkutxa ateratzea eta argazkiak egitea». Lagun bati esan zion, Bixente Ameztoti. Hark etxea zeukan Villabonan, Zizurkil ondoan, ezagutzen zituen ingurua eta ingurukoak. Omenaldiko argazkiak ateratzera joan zen argazkilaria batekin egin zuten tratua, gauetan hilerrian elkartzeko. Ameztotoren Villabonako etxera joan eta denbora egin zuten bertan, iluna heldu artean. «Jende gehienak artista gisa ezagutzen du Bixente. Normala, XX. mendean Euskal Herriari eman zuen artista handiena baitzen, Balerdirekin batera. Txoriburutzat ere izango dute batzuek, drogarekin arazoak izan zituelako eta. Pertsona osoa zen, bada, eta oso azkarra. Isilean eta ezerean truke lan asko egindako ezker-tiarra eta abertzalea. Hau zuei kontatzeko arrazo nagusia, hain zuzen ere, horrixe da: hari omenaldia egitea. Hura hil zen, eta neu ere laster hilko naiz, gaitz larria daukadalako».

Hilobia

Arregiren Zizurkilgo hileta eta omenaldia bukatutakoan, Unzurrunzaga eta Ameztoti artistaren etxera joan ziren, Villabonara, dena prestatzera. Atzera Zizurkilerara abiatzeko garaia heldu zenean, maindire mordoa hartu eta etxetik irten zen lagun parean.

Joxe Arregi Izagirren hilobia izan zuten zain, hilobi beraren aurrean dago orain Unzurrunzaga: «Egia borobila esaten du hilarriak, *Madrilen hil zuten*. Halaxe izan zen». Berak ere Madrilen ezagutu zuen tortura zuzenean. «1975eko irailean izan zen, giroa oso gogorra zen, eta ETA politiko-militarrek komando bateko kide nintzen. Mikel Lejarza Egia *El Lobo* zen gure azpiegitura arduraduna, eta erori ginen egun berean hitzordua jarri genuen harekin, hainbat kontu susmagarri egiten zitzaizkigula



Biak. Bixente Ameztoti eta Juan Kruz Unzurrunzaga elkarrekin, Eduardo Txillidaren erakusketan, 1999an. BERRIA

• Adiskide eta ekintzaila

Bixente Ameztoti
(1946-2001)

Donostian jaio zen, eta Jesus Olasagasti osabarekin eta Ascensio Martiarena margolariarekin egin zituen lehen urratsak arte munduan. 1967an egin zuen bakarkako lehen erakusketa. 70eko hamarkadan atzerriko artezaleen atentzioa ere erakarri zuen. 1979an sortu zuen *Euskadi-Sioux* aldizkaria diseinatu zuen, baita garai hartako hainbat *Zeruko Argia* aleren azalak ere. 1984tik 1990era erakustaldi publikoetatik aldentuta ibili zen, osasun arazoaren ondorioz. 1990ean, Artelekun 1976tik ordura arteko lan guztiak erakutsi zituen. 1993an, Erremelluriko ermitan santutegi oso berezia margotzen hasi zen. Zazpi urte eman zituen lan horretan. Berritzailea oso eta pertsonala bere lanetan, idealismo magikoa eta surrealismoa baten zituen estiloarekin euskal izaeraren eta artearen gaineko ikuspegi konplexua eta ironikoa garatu zuen. Ez zen handikeria zale, ezta merkatuaren morroi ere, eta herri mugimenduekin lotura mantentzen saiatzen zen. Abiadura Handiko Trenaren aurka eta Villabonako gaztetxean egin zituen margoak dira, besteak beste, horren erakusgarri.

esateko. Gizajo plantak egin zituen, sinetsi egin genion. Gau hartanxe etorri zitzaizkigun polizia etxera atxilotzera. Mirariz nago bilera abiatzeko garaia heldu zenean, maindire mordoa hartu eta etxetik irten zen lagun parean.

Eta Franco hil osteko amnistia etorri zen. Abokatua zenez ikasketaz, kartzelatik irten berritan trajea jantzi eta presoen abokatu la-

Juan Kruz Unzurrunzaga
(1940)

Azken hamarkadetakoa euskal artistarik handienak ezagutu ditu. Frankismo garaian euskal literaturari arnasa eman zion Zarauzko Itxaropena argitaletzeko nagusiaren semea, Lekarozen ikasi zuen umetan. Zuzenbide ikasketak egin zituen. 1975eko irailean Madrilen atxilotu zuten, ETA politiko-militarrek komando bateko kide zela. 1975eko abenduko amnistiari esker kartzelatik irten eta presoen abokatu egin zen. Bi urteko bidaiak egin zuen ondoren, Venezuela, Kolonbia, Ekuador, Peru, Bolivia, Argentina, Uruguai, Brasil, Txile, Puerto Rico eta New Yorkera. Salvador Allenderen Txilen, besteak beste, helduen alfabetatze programa batean aritu zen lanean. 70eko hamarkadaren amaieran, Albaina enpresa sortu zuen, kultura sustatzeko. Segidan, Orquesta Mondragon taldearen managerra izan zen. Lehen arte galeria Eduardo Txillidaren lanekin zabaldu zuen, duela ia mende laurden, Donostian. Altxerri izena eman zion. 2001ean, Ekain galeria ireki zuen. Han segitzen du lanean, eta han segitu nahi du diagnostikatu zioten minbizia utzi bitartean.

netan hasi zen. «Preso gisa ezagutzen ninduten funtzionarioen aurpegia ni trajearekin bisitan sartzen ikustean! Abokatutza berez ez zitzaidan gustatzen, baina ondo etorri zitzaidan presoei laguntzeko. Bisitan joaten nintzaien, gutunak eta beste eramanez. Hogeiren bat kartzela bisitazten nituen».

Damurik ez

Esan du lehen, abokatu lanari esker izan zuen Arregiri gertatzen ari zitzaionaren berri, eta hortxe hasi zitzaion berotzen odola, torturak ukatzeko eta gorpua ezkutatzeko temarekin sutzen. «Egin beharrekoa egin genuen: bertsio ofiziala indargabetu. Han isildu ziren betiko 'berez hil', 'arnasa eten' eta antzeko irainak. Munduak jakin zuen Joxe Arregi torturagatik hil

zela. Historian hala geratuko da. Egindakoa ez zait inoiz damutu».

Eta hilobia itxi, eta etxera buelta. Gaur arte. «Zertarako bueltatu?». Bazuten nahi zutena. Argazkilaria arduratu zen irudiak erbelatzeaz. «Hedabide eta agentzia guztiei, Amnistiaren Aldeko Batzordeei, Amnesty Internationali, ahal genuen guztiei helarazi genizkien irudiak». Eta milaka pertsonaren memoria kolektiboan txertatu ziren. Zizurkilgo hilerri honetako harrizko mahai honetan ateratako argazkiak. Madrileko Autizetigo Institutu Anatomikotik eta Carabanchelgo Ospitaletik ehunka kilometrotara.

@ Elkarriketaren bidea, webgune honetan:

www.berria.info



Greba. 1981eko otsailaren 16a Joxe Arregi lurperatzeko eta hari gertatutakoa salatzeo eguna izan zen. Irudian, astelehen hartan Bilbon egin zuten manifestazioa. BERRIA

// Amagoia Iban

autoan ETA militarreko ustezko lau kide zihozten eta Espainiako Poliziak geldiarazi zituen. Madrilen. Auto barrukoak lasterka abiatu ziren ihesean. Isidro Etxabe *Zumai* balaz zauritu zuten, Joxe Arregi Iza-girre erori egin zen, buruan kolpea hartuz. Atxilotu egin zuten. Zizurkilgoa (Gipuzkoa) zen, 30 urte zeuzkan.

Espainiako Poliziaren Segurtagunerako Zuzendaritza nagusian (DGS) eduki zuten bederatzigunegunez, handik Carabanchelgo espetxe ospitalera eraman zuten, arratsaldeko bostetan. Hilzorian zegoen, jasandako torturen ondorioz. 1981eko otsailaren 13ko arratsaldeko ordu biak laurden gutxitan hil zen, Espainiako Barne Ministerioaren arabera. Ostirala zen. Asteburuan bisitan joan ziren senideen bitartez, Iñaki Agirre Errazkin, Xose Lois Fernandez Gonzalez eta Lois Alonso Riveiro preso politikoez —ETA politikoa-militarreko, Grapoko eta PCE(r) Espainiako Alderdi Komunista Berrosatuko kide ziren, hurrenez hurren— salaketa idazkia atera ahal izan zuten larunbatean bertan, Arregirekin egin zituzten orduen berri emanez.

«Lehendabiziko begiratuan iruditu zitzaigun fisikoki txiki-txiki eginda zegoela», zioten presoek. Arregiren hitz batzuk ere jaso zituzten: «Oso latza izan da»; «barratik hainbatetan zintzilikatu ninduten oinetan kolpeak emanez, zerbaitekin erre ere egin zizkidaten, ez dakit zerekin; nire bular gainean saltoka ibili ziren; toki gutzietan eman zizkidaten borra-

kadak, kolpeak eta ukabildakak»; «hainbat atake epileptiko eduki ditut DGSan, eta bizitza osoan ez zait halakorik gertatu»; «nik uste diat hiltzekotan nagoela»...

Bertsioak

Egin egunkariak biharamunean argitaratu zuen testigantza osoa, lehen orrialdean. Ordurako, estatu aparatu guztiak gertaturikoa ukatzen zebiltzan. Arregi hil zen egun berean, arratsko zortzietan, Espainiako Espetxe Erakundeetako Zuzendaritzako buru Enrique Galavisek RNE Espainiako irrati publikoan hitz egin zuen: «Atzo ekarri zuten, 17:30ean. [...] Azterketa bat egin zitzaion, hematoma ba-



Joxe Arregik hiru presori eman zien jasandako torturen berri, Carabanchelgo ospitalean

Espainiako Poliziako zuzendari nagusiaren arabera, «inoiz ez zitzaion tratatu txarrik eman»

ASTINDU UBELA

Joxe Arregi 1981eko otsailaren 4an atxilotu zuten, Madrilen. Handik bederatzigunera hil zen, Carabanchelgo espetxe ospitalean, jasandako torturen ondorioz. Heriotza hark gogor astindu zuen lehendik astindua zegoen euskal gizartea.



Herrian. Zizurkilgo plazan jendetzak omendu zuen Arregi hileta egunean. BERRIA

tzuk eta disnea —arnasa hartzeko zailtasuna— sakona antzeman zizkioten; baita zehaztu gabeko mina ere sabelaldean. Erradiografia bat egin, eta birika bat pixka bat putzututa eta bronkoneumonia prozesu arrastoak aurkitu zitzaizkion. Gaur goizean egin zaion azterketan, azken prozesu horrek okerrera egin zuela ikusi da».

Espainiako Barne Ministerioaren arabera, bronkoneumoniak okerrera egitean deitu zuten ambulanzia, Arregi Carabanchelgo ospitaleko beste batera aldatzeko. Espainiako Poliziako zuzendari nagusi Jose Manuel Blancok ziur esan zuen, RNE: «Egindako galdeketa, atxilotuari inoiz ez zitzaion tratatu txarrik eman».

Herri Batasunak «estatu hiletan» aipatu zuen. Eta Carlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Arregiren heriotza salatu. «Oinazea muga tragikoetara erabiltzen dela baieztatzen du». Horrez gain, lehendik kokan zegoen egoera are «kolokago» jartzeko eragindako heriotza ote zen iradoki zuen.

Giroa

1981eko hasiera gogorra izan zen, izan ere. Otsaila, bereziki. Joxe Arregi atxilotu zuten egun berean, Espainiako erregearen aurrean *Eusko gudariak* kantatu zuten HB Herri Batasuneko ordezkariak.

ETA militarrek urtarrilaren 29tik bahituta zeukan Jose Maria Ryan hilik agertu zen hilaren 6an. 9an, herritarrek ETArekin aurkako grebara deitu zituzten EAJk, PSE-PSOE, PCE-EPKk, Euskadiko Ezkerrak, CCOOK, UGTk eta ELAk. Handik astebetara, Joxe Arregiren heriotza salatzeo grebara deitu zuten eragile berek.

Astebete lehenagoko deialdiarekin bat egin ez zuten PTE, EMK, LKI, HB, LAIA, KAS, Amnistiaren Aldeko Batzordeak... taldeek ere egun bererako deitu zuten grebara, jendetza mobilizatu zuten.

Greba egun berean, Joxe Arregi Zizurkil jaioterrian lurperatu zuten. Bezperan ekarri zuten senideek Madrildik, tentsio izea zenbait ere izan ziren bidaia hori zela tarteko. Familiak zioen ez zuela nahi heriotza hura politizatzerik; intimitate osoan nahi zuten lurperatu gaztea. Arratsaldean egin nahi zuten hileta elizkizuna, baina arratsaldean manifestazioak deituta zeuden. Herri batzordekoekin negoziatu ostean, eguerdira aurreratu zuten elizkizuna. Elizkizun aurke bi orduak, herriko plazan egon zen hilkutxa. Lehen ordua itxita egin zuten, horixe zen Madrildik ezarritako agindua. Gazte batzuek mailua eta zintzela eskuan hilkutxa ireki zuten arte.

Jendetza egon zen plaza hartan, jendetzagonean Joxe Arregiren hilkutxaren atzetik Zizurkilgo hilerria. Hurrengo egunean, Espainiako Barne ministro Juan Jose Rosonek atxilotetan izandako tirabirekin lotu zituen haren zauriak, hamaikagarren aldiz.

• Auzitegietakoko ibilbidea

Madrilgo Giza Eskubideen Batzordeak egindako txosten baten arabera, Joxe Arregiren atxiloteta eta galdeketa Espainiako Poliziaren Eskualde Brigadetakoko eta Informazio Talde Zentraleko 73 kidek parte hartu zuten, baina horietako bost baino ez zituzten auzipetu. Arregi hil eta hilabetera atxilotu zituzten, 1981eko martxoaren 14an, hamar egun geroago aske uzteko. 1983an egin zen lehen epaiketa, baina akusatuen aulkian bi akusatu baino ez zeuden —Antonio Gil Rubiales eta Julian Marin Rios—. Hirugarren ahaleginean lortu zen haiek zigortzea, kasua zortzi urtez auzitegi-tan bueltaka ibili ondoren. Hau da auzipetun ibilbidea:

Juan Antonio Gil Rubiales: Hiru hilabeteko atxiloaldia agindu, eta bi urte lanik eta soldatarik gabe utzi zuen Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiketa, 1989an. 1992rako Madrilgo Hiritarren Segurtasunerako Taldean ari zen lanean, eta Poliziaren Esku-hartze Unitateko buru izendatu zuten. Iaz hil zen, Tenerife (Kanaria uharteak) Probintziako Komisaria buru zela. Estatuaren, militarren eta Eliza katolikoaren ohore ofizialekin lurperatu zuten.

Julian Marin Rios: 1987an Espainiako Poliziaren Artzilaria taldeko buru zenari ere hirur hilabeteko atxiloaldi ezarri zion Gorenak, eta hirurte lan eta soldatarik gabe utzi zuen. Urteak daramatza Espainiak Quiton duen enbaxadan, Barne Ministerioko ordezkari gisa.

Ricardo Sanchez: Epaitu ere ez zuten egin, eta 1992rako Polizia Judizialeko Brigada Zentraleko inspektore nagusia zen.

Juan Luis Mendez: Madrilgo Hiritarren Segurtasunerako Taldeko buru egin zuten 1994an.

Juan Antonio Gonzalez Garcia: Goi mailako kargu ugari bete ditu 1980etik, eta egun Polizia Judizialaren Komisaria Nagusiko buru da.

Sendagileak: Joxe Arregiren zaurien larritasuna estaltzen saiatzea-gatik lau medikuren —Santiago Martin Pachon, Miguel Usieto, Isidro Alvarez Garcia eta Javier Juan Etreros— kontrako neurriak eskatu zituzten Bartzelonako Medikuen Elkargo Ofizialak eta Hego Euskal Herriko 200 medikuk. Madrilgo Medikuen Elkargo Ofizialak ez zuten inolako neurririk hartu, eta Madrilgo 13. Instrukzio epaitegiak artxibatatu egin zuten haien kontra zabalduko espeditentea. Segurtasunerako Estatu Idazkaritzako zerbiztu medikoen burua zen Martin Pachon garai hartan, eta aldi batez kargutik kendu zuten. Kasuaren oihartzuna baretu zenean, berriro itzuli zioten kargua. Polizia inspektorea ere bazen Martin Pachon.



Hemezortzi. Zizurkilgo hilerriko depositoa ateratako hemezortzi argazki jaso zituzten hainbat hedabide eta erakundetan, ahalik eta gehien zabaltzeko eskaerarekin. BERRIA

ESPERO GABEKO IRUDIAK

Otsailaren 22an argitaratu ziren lehen aldiz Joxe Arregiren gorpuari ateratako argazkiak. Egunkari eta aldizkari ugaritan plazaratu zituzten.

|| *Amagoia Iban*

Gutun izen gabe batean 18 diapositiba jaso zituztela Donostiako egoitzan. Otsailaren 21ean, larunbata, prentsaurrekoan jakinarazi zuten Euskadiko Ezkerrako Iñaki Albisturrek eta Javier Olaberrik. Diapositibak erakutsi zituzten prentsaurrekoan; biharamunean hainbat egunkaritan aipatu eta erakutsi zituzten. «Autopsia egin ostean egindako argazkiak» aipatu zituzten hedabideek, eta Iñaki Albisturren hitzak jaso: «Kontzientziaren harrak jaten zuelako gertatutakoa agerian uzten saiatu den norbaitek bidaliak izango dira seguruenik».

Punto y Hora aldizkariak, berriaz, lau orrialdeko gehigarri berezia argitaratu zuen hurrengo astean, koloreetan, bere 215. zenbakian: 18 argazkietatik zazpi plazaratu zituen, *Argazki salatzaileak* izenburupean. Gehigarriaren azken orrialdean, Joxe Arregi ahoz gora, aurrez aurre eta maindire artean agertzen zuen argazkiaren azpian, argazkiokin jasotako oihartxo argitaratu zuten: «Argazki hauek Euskadiko Ezkerra, Eusko Jaurlaritza, Amnesty International eta Herri Batasunaren inguruko hedabideetara igorri dira, euskal herriari eta munduko herri guztiei helarazteko asmo bakarrekin. Sobera daude, beraz, alder-



Kolpeak. Arregiren begietan ubelduak eta bekokian kolpeak ikus zitezkeen. BERRIA



Erredurak. Arregiren oin azpietako erredura beldurgarrien detailea. BERRIA

di, talde edo koalizioen manipulazio edo erabilpen oro».

Hitzez eta irudiz

Egin egunkariko orduko zuzendaria, Jose Felix Azurmendik, argazkiak atera baino astebe lehenagoko testigantza dakar gogora. Joxe Arregiren hilketa salatzeke greba egunaren bezperan argitaratu zuen egunkarian. Arregik Carabanchelgo Ospitalean egin zuten azken orduen eta hitzen berri emateko: «Hiru presok helarazi zuten testigantza hura, haiei esker jakin zen zein egoera negarga-

rrian heldu zen Arregi Carabanchelgo ospitalera, nola kontatu zituen egin zizkiotenak, nola esan zuen 'oso latza izan da' eta beste». Larunbat gaueko bederatzia aldera jaso omen zuen Azurmendik testigantza. *Egin*-eko lehen orrialdean sartu zuen, oso-osorik, «erabateko sinesgarritasuna» zeukalako. Hurrengo goizeko bederatzietarako, egunkaria ia erabat agortuta zegoen kioskoetan.

«Argazkiena geroago etorri zen. Ez genituen espero, halako argazkiak jasotzea ez zelako sekula gertatu. Kolpatuen eta hilen argazkiak bai, ikusiak genituen, baina komisariaren hildakoenak ez. Testigantza ezagutzeaz gain gertatutakoa argazkietan ikustea, ez zen lehenik sekula gertatu».

Argazkiak Madrilan eginda zeudelako bertsioa aipatu du Azurmendik. Eta nabarmendu, 1981eko otsail hura «izugarria» izan zela. «Lemoizko zentralako ingeniari Jose Maria Ryanena [ETA militarrek hilaren 6an hil zuten, urtarriaren 29tik bahituta zeukan] oso gogorra izan zen, eta jende asko atera zen haren alde. Joxe Arregirena ere oso gogorra izan zen, eta are jende gehiago atera zen haren alde. Nik esango nuke jende batean eta bestean izan zela». Eta Gernikako Juntetxean, Espainiako erregearen aurrean, *Eusko gudarriak* kantatu zuten. Eta Arregiren gorpuaren argazkiak plazaratu osteko egunean, Tejero eta beste hainbat jeneral estatu kolpea ematen saiatu ziren espainiar.

Arregiren tortura kasuak Euskal Herriko eta Espainiako hedabideetan orokorrean oihartzuna izan zuen Azurmendiren uestez. «Halako gaietan egunkariak eta komunikabideek oro har, garai bateko jarraitik gaur egunera atzera nola egin duten ikustea, hori da larria».